

GABONETAN, EZ JARRI JOKOAN



Jostailuak haurtzaroan ezinbestekoak dira
umearen garapenerako.

Jostailua aukeratu aurretik ondo pentsatu behar da,
publizitatearen aginduak alde batera utzita .


ZELAN AUKERATU JOSTAILU EGOKIA?

ETIKETATZEA

- * Ziurtatu **produktuaren eta enpresa fabrikatzailearen edo inportatzailearen identifikazioa** daramatzala.
- * Ez onartu **etiketa gaztelaniaz** ez duen inongo jostailurik, erabiltzeko instrukzio eta segurtasun ohartarazpenak barne.

SEGURTASUNA

- * Egiaztatu **CE marka** daramala.
Ziurtatu jostailuak Europar Batasuneko segurtasun-arauak betetzen dituela.
- * Hautatu **material** sendoak eta ez zorrotzak.
- * **Pilak** behar baditu, ziurtatu zaila dela eurek jartzeko gelaxka zabaltzea.



ADINA


- * Aukeratu umearen **adinerako** egokia den jostailua.
- * Errespetatu jostailua jasoko duen umearen **eboluzio eta heldutasun maila**.
- * Aintzat hartu umearen **beharrak eta gustuak**.



BALOREAK

- * Erosi jostailu **dibertigarriak, irudimena** piztu eta **ikastea** sustatzen dutenak.
- * Hautatu **lagun gehiagorekin jolasteko aukera** ematen duten jostailuak.
- * Ez erosi estereotipo sexistak transmititu edo indarkeria sustatzen duten jostailuak.

BIDEOJOKOAK

- * Ondo aztertu etiketa:  kodeak produktuaren edukia eta berorrekin jolasteko gutxieneko adina zein den zehazten du.



GOGOAN IZAN

- Ez egin kasu handiegirik **publizitateari**.
 - Erosi aurretik, **probatu** jostailua.
- **Gorde faktura, publizitatearen esku-orria eta jostailuarekin lotutako edozein agiri**, erreklamaziorik egin behar baduzu ondo etorriko zaizkizu eta.